

**2.007ko UZTAILAREN 14an ZUMAIAKO UDALEAN  
EGINDAKO EZ OHIKO UDALBATZAREN AKTA**

"Zumaiako hirian, 2.007ko uztailaren 14an, goizeko 10:00etan, udaletxe honetako Biltzar Aretoan Udaltzako eratu da ez ohiko batzarraldia egiteko, aurrez izendatutako eguneko aztergaien arabera. Garaiz eta modu egokian deituak izan zirelarik, ondoren aipatzen diren Udaltzako kideak bertaratu dira:

**LEHENDAKARIA.-**

Iñaki AGIRREZABALAGA ALKORTA jauna.

**ZINEGOTZIAK.-**

Maria Eugenia ARRIZABALAGA OLAIZOLA andrea  
Unai MANZISIDOR ANDONEGI jauna  
Lide AMILIBIA BERGARETXE andrea  
Manuel ZUBIA ARTABE jauna  
Andoni ETXANIZ OSA jauna  
Miren Nerea EPELDE AZKUE andrea  
Joseba Josu ASPIAZU AZKARRAGA jauna  
Pilar ETXABE IRIONDO andrea  
Maria Cristina FORCADA UNANUE andrea  
Xabier OLAIZOLA ANTIA jauna  
Emiliano CABAÑAS GONZALEZ jauna  
Paloma HEREDERO NEGREDO andrea

**IDAZKARIA.-**

Miren ETXEZARRETA GARMENDIA andrea

Hainbat herritar ere bertaratu dira..

**I.- EAE-ANV TALDE POLITIKOAREN ERAKETAREN BERRI EMAN, BAI  
ETA KIDEEN ETA BOZERAMAILEEN BERRI ERE**

Alkate jaunak bilera eratutzat eman ondoren, EAE-ANVko ordezkari Andoni Etxaniz Osari eman dio hitza, honek alkatetzari zuzendutako idatzia irakurri du. Idatzian berri ematen da, hemendik aurrera EAE-ANV ZUMAIAKO UDAL TALDEA izeneko talde politikoa eratuko dela.

Talde politiko hori EAE-ANVko hiru zinegotziek osatuko dute, Andoni Etxaniz Osa, Nerea Epelde Azkue eta Joseba Josu Azpiazu Azkarrak. Taldearen bozeramailea Andoni Etxaniz Osa izango da.

## **II.-UDALBATZEN MAIZTASUNA**

Alkate jaunaren proposamenarekin bat etorritik, talde politikoetako bozeramaileen iritzia entzun ondoren, eta Korporazio Lokalen Erregimen Juridiko, Funtzionamendu eta Eraketa Araudiaren 38 eta 78 artikuluetan xedatutakoaren arabera (Azaroaren 28ko 2568/1986), Udalbatzak aho batez, honako hau erabaki du;

Udalbatzak ondorengo maiztasunaz egitea onartzea:

Udalbatzak bere ohiko bilera egingo du hilean behin, hilaren azkeneko ostegunean, 19:30ean.

## **III.- KARGU HAUTETSIEIEN ORDAINSARIAK.**

Alkate jaunak esan du, EB/Aralar taldeak azkeneko orduan emendakina aurkeztu duela hautetsien ordainsarien inguruan.

Indarrean dagoen legediaren arabera, emendakina eztabaidatu eta bozkatzea dagokio.

Ondoren EB/Aralar taldeko bozeramaileak emendakina irakurri du, honela dio:

### **ZUMAIAKO UDALEKO UDALBATZARI**

07/07/17ko Udalbatzari dagokion eguneko aztergaien hirugarren puntuari emendakina

Udalaren aurrekontutik kargu hautetsiei ordainsaria emateko proposamena.

- 1.- Alkateak Udaltz hitzarmenaren 15. mailari dagokion ordainsaria jasoko du.
- 2.- Erabateko dedikazioa izango duten udal taldeetako ordezkariak Udaltz hitzarmenaren 13. mailari dagokion ordainsaria jasoko dute.

Zumaia 07/07/14

EB/Aralar taldearen bozeramailea  
Cristina Forcada.

Taldeei hitza eman zaienean, EAJ taldeak ezezko botoa emango diola adierazi du.

PSOeko bozeramaileak esan du abstenitu egingo direla, proposamena beraientzat berria delako, ez zutelako aurrez ezagutzen, eta aurretik eztabaidatu eta baloratu ez dutenez, ez dutela kontuan hartu ere egingo.

ANVk kontra bozkatuko duela adierazi du, eta esan du EB/Aralarren emendakinak harritu egin duela. Izan ere, bada proposamen bat ordezkariak duten talde politiko guztiei herriaren alde lan egiteko aukera ematen diena eta horrek 99.000 €ko kostua du, EB/Aralarrek aurkeztutako proposamenaren kostua, berriz, 149.000 € izango litzateke.

Horrek % 50eko igoera esan nahi du, eta emendakin hori aurkeztu duen talde politiko ezkerrekoa eta aurrerakoia da. Eta galdetu du zein partidatan gutxitu beharko den gastua.

Kargu hautetsien ordainsariei dagokiena gai berezia da, herriaren izaeraren arabera finkatu behar dena eta ez talde politikoen beharrezan arabera.

EAK adierazi du kargu hautetsien ordainsarien proposamenaren kontrako emendakin hau zertara datorren ez dakiela eta kontra bozkatuko dutela.

Ondoren bozketa egin da:

Eskubidezko zinegotziak: 13

Bertaratuak: 13

Aldeko botoak: 2 EB/Aralar.

Kontrako botoak: 9 ( 4 PNV, 3 ANV y 2 EA)

Abstentzioak: 2 PSOE.

#### ERABAKI DA:

Kargu hautetsien ordainsariei buruz EB/Aralarrek aurkeztutako emendakina ez onartzea.

Alkate jaunak Udalaren ezaugarri bereziak kontuan izanik, AJA.ko 13. artikuluan eta TAOLEko 75 artikuluan xedatutakoan oinarriturik, kargu hautetsien ordainsarien berri eman du:

**LEHENENGOA:** Alkateak bere kargua erabateko dedikazioz beteko du eta EUFALEBA-ren (UDALJITZ) 19. mailari dagokion ordainsaria jasoko du, hamalau hilabetean banatuta. Udalak bere gain hartuko ditu Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorrak enpresei eskatzen dizkien betebeharrak, beren zerbitzupeko langileekiko.

**BIGARRENA:** Hirigintza eta Ingurumen Batzordeko buru, Andoi Etxaniz jaunak bere kargua erabateko dedikazioz beteko du eta EUFALEBA-ren

(UDALHITZ) 15. mailari dagokion ordainsaria jasoko du hamalau hilabete banatua. Udalak bere gain hartuko ditu Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorrak enpresei eskatzen dizkien betebeharrak, beren zerbitzupeko langileekiko.

Hitz egiteko txanda emanda, EAJko bozeramaileak esan du kontra bozkatu dutela, ez dutelako beren alkatetzat hartzen Iñaki Arrizabalaga.

Era guztietara, eta EUDELetik ezarritako irizpideekin koherenteak izanik, alkatearen ordainsaria ez da ezarri behar behetik jota, irizpide horiek beraientzat baliozkoak izan baziren, besteentzat ere hala izan behar dutelakoan daude.

Andoni Etxanizen liberazioa eta ordainsaria 15. mailakoa dela eta, harritu egiten dira, kontuan hartuta gaur egun arte, liberatutako zinegotzia 13. mailan zegoela. Harridura are handiagoa da historikoki kargu publikoei ordaintzearen kontra egon direla gogoratuta.

Horri buruz azalpena eskatu dute.

PSOE taldeak esan du beren erantzukizuna dela eta, abstenitu egingo direla

EB/Aralar taldeak esan du beraiek ez daudela horren alde, Udaltzaren aurrean 3. puntuari emendakina aurkeztu diotelako, eta emendakin horri eutsi egiten diotelako.

ANVko bozeramaileak esan du, erreferentziatzat ez dutela hartzen bigarren zinegotziaren liberazioaren kostua, batzuek egin duten bezala, baizik eta, liberazio biak bere osotasunean.

Orain arte kostua 99.000 €ko zen, eta orain berriz, kostua gutxitu eta 71.000 €an geldituko da. Jaitsieraren ehunekoa %30 ingurukoa da, aurreko emendakinean proposatzen zen %50eko igoera baino askoz ere dotoreagoa.

Andoni Etxanizen liberazioari dagokionean esan nahi du, zinegotzi horrek lehen lana egiten zuen enpresan zeukan ordainsariaren parekoa mantentzen duela..

Beren erreferentzia soldata duinei eustea izan da aberats berririk sortu gabe.

Lide Amilibia EAJko zinegotziak esan du aurreko legealdian bera zela bigarren liberatua eta 13. mailari zegokion ordainsaria zeukala. Beretzat hori soldata duina zela eta orduan ere herriaren alde lan egiten zuela. Harritu egiten da ezkerreko eta aurrerakoi diren taldeentzat hori ez dela horrela ikusita.

ANVko bozeramaileak esan du poztuko litzatekeela gainerako talde politikoek bere liberazioari dagokion ordainsaria 15. mailakoa izatea ulertuko balute.

EB/Aralarreko bozeramaileak gogoratu du alkatetza duen alderdi politikoa hirugarren indarra izan dela eta alkatetzan dagoela EB/Aralarreko botoei esker.

Horren guztiaren ondoren, kontua da EB/Aralar ez dagoela gobernuan, beraz, beren botoa abstentzioa izango da.

Alkateak esan du bakoitza bera dela esaten duenaren eta egiten duenaren jabe. Hitz egiteko kontua da, nola dauden jakinda, denen artean hitz egin beharko dutela. Denak baitaude bata bestearen menpe.

PSOE taldeak esan du ekainaren 16an, alkatea aukeratu eta Udalbatza eratzeko saioan aldaketa saldu zutela eta orain ikusten duten bakarra diru jokoa dela. Beren buruari galdetzen diote hori ote den agindutako aldaketa..

Kargu publikoen ordainsarien proposamena oraintxe bertan jaso dutela eta ondorioz, beren botoa abstentzioa izango dela.

Ondoren bozketa egin da,

Eskubidezko zinegotziak: 13

Bertaratuak: 13

Aldeko botoak: 5 ( ANV 3 y EA 2 )

Kontrako botoak: 4 ( PNV).

Abstentzioak: 4 ( 2 EA/A y 2 PSOE).

#### ERABAKI DA:

Alkateak egindako proposamena onartzea.

LEHENENGOA: Alkateak bere kargua erabateko dedikazioz beteko du eta bere ordainsaria EUFALEBA-ren (UDALHITZ) 19. mailari dagokiona izango da, hamalau hilabetean banatuta. Udalak bere gain hartuko ditu Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorak enpresei eskatzen dizkien betebeharrak, beren zerbitzupeko langileekiko.

BIGARRENA: Hirigintza eta Ingurumen Batzordeko buru Andoni Etxaniz Osak, bere kargua erabateko dedikazioz beteko du eta ordainsaria EUFALEBA-ren (UDALHITZ) 15. mailari dagokiona izango du, hamalau hilabetetan banatuta. Udalak bere gain hartuko ditu Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorak enpresei eskatzen dizkien betebeharrak, beren zerbitzupeko langileekiko.

### **III – BATZORDE INFORMATZAILE IRAUNKORREN ERAKETA ETA OSAKETA.-**

Alkate jaunak Batzorde informatzaile iraunkorren eraketa eta osaketaren proposamenaren berri eman du.

**1.-HIRINTZA ETA INGURUMENA.**

**2.- ZERBITZUAK.**

**3.- OGASUNA.**

**4.- PERTSONALA.**

**5.- EUSKARA eta -HEZKUNTZA.**

**6.- KIROLAK.**

**7.- KULTURA, TURISMOA ETA MERKATARITZA.**

**8.- GIZARTE ZERBITZUAK.**

**9.- HERRITARREN PARTAIDETZA, ETORKINAK, BERDINTASUNA ETA GAZTERIA.**

Hitza emandakoan, EAJkjo bozeramaileak esan du Batzordeak osatu eta beraietan parte hartzeko proposamenaren berri ostegunean izan zutela, eta zaila egiten zaiela onartzea kontuan hartuta, boto kopuru gehien izan dituen alderdi politikoa izan direla. Beren ustez, alkatetza eta gobernuaren erantzukizuna izan behar lukete. Beraz, zaila egiten zaie beraien parte hartze maila zehaztea.

Alkatetzatik galdera egin zaie Batzorde jakin bat eskaini zaielako erantzuten duten hori.

EAJk erantzun du ez zuketela onartuko, Hirigintza Batzordea izan balitz ere.

Alkateak esan du Udalbatzari dagokiola alkatea aukeratzea. Donostian alkatetza Xabier Albizturri zegokion baina Odon Elortzak eskuratu zuen. Udalbatzak Zumaiako herria ordezkatzeko du.

EAJk erantzun du ez duela alkatearen zilegitasuna zalantzan jartzen, baina bai aurreko hitzarmenak bete ez izana.

Alkateak esan du bere alderdiaren barruan eman dituela eman beharreko azalpenak.

PSOeko bozeramaileak esan du bera ez dela sartuko eztabaidatzera alkatearen aukeraketa demokratikoa izan den ala ez.

Baina beren ustez oso presazkoa da orain onartu beharra Batzorde Informatzaileen eraketa, aurretik horren berri izan gabe eta bere buruari galdetzen dio ea aurrerantzean hori izango den gobernu berriaren funtzionatzeko era.

Alkateak erantzun dio bozeramaileen bilera bat egin zela eta PSOEk bere burua bilera horretatik kanpo utzi zuela. Era berean, aitortu du oraingo honetan ez dela nahikoa denbora egon. Dena dela, proposamena erabat irekia zegoen alderdi guztiek parte hartzeko, hau da, malgua zen.

ANVko bozeramaileak esan du azkeneko unera arte zain egon direla proposamena ixteko baina EAJk ez duela erantzunik eman. Beraiek Udala eratu nahi dute alderdi guztien ordezkaritzekin. Beren proposamena xumea izan da, historikoa eta zentzu horretan oso aberatsa.

EAJko bozeramaileak esan du duela lau urte, EArekin paktua eginda Udal gobernua eratu zenean, orduko egoera politikoan, ezker abertzalearengana zuzendu zirela, eta erantzun zitzaiela ez zutela beraiekin hitz egin nahi eta are gutxiago lau urterako akordiorik egin.

EB-Berdeak/Aralarrek adierazi du, aurkeztutako proposamenaren alde daudela.

ANVk adierazi du baduela borondatea EAJrekin hitz egin eta negoziatzeko.

EAJk erantzun dio beraiekin negoziatzeko borondateaz egin duten adierazpen publiko hori antzerki hutsa dela eta makillaje kontu bat besterik ez. Ondorioz, kontra daude, eta gaineratu du erantzunik ez zutela eman euren bilera berandu amaitu zelako.

ANVtik erantzun dute, duela lau urte ez zekitela kargu politikoen ordainketen mailek zer suposatzen zuten eta konfidantza emateko asmotan abstenitu egin zirela. Hori aktan jasota dagoela gaineratu du, PSOEek beraiei eskatzen zaien konfidantzaren inguruan esandakoari erantzunez.

EAJk esan du aktan ez dela jasotzen mailen esanahiaren berri bazuten edo ez, han jasotzen da bakarrik nola bozkatu zuten.

PSOEek esan du duela lau urte gaizki hasi zirela, eta orain ere bai. Azal diezaietela non dagoen aldaketa.

Gaineratu dute beraiek nahi dutena kudeaketa dela eta 16an beren burua kanpo utzi zutela aurkeztutako formula ez zitzaielako gustatzen. Eta hori beren eskubidea dela.

Alkateak erantzun dio modu ezberdinean hasi direla, proposamen ireki batekin eta proposamen ezberdin batekin. Beharbada hobeto lan egin beharko dute mundu guztiak parte har dezan.

EAJk galdetu du ea nor izango den Euskarako Batzordearen burua, eta erantzun zaio Nerea Epelde izango dela. EAJko bozeramaileak argi utzi nahi du ez dutela ezezkoa eman Euskara Batzordea eskaini zaielako, planteamenduaren kontra daudelako baizik, azalpenaren hasieran arrazoitu bezala, eta ez daudela Batzorde Iraunkorren sorrera

proposamenaren aurka ere, izen batekin edo bestearekin udaleko alorrei erantzuten baitzaie.

Ondoren bozketa egin da:

Eskubidezko zinegotziak: 13

Bertaratuak: 13

Aldeko botoak: 7 ( ANV 3 ; EA 2 eta 2 EB-B/A )

Kontrako botoak: 4 ( EAJ).

Abstentzioak: 2 ( PSOE).

Alkatearen proposamenarekin bat etorritz, alderi politikoen bozeramaileen hitzak entzun ondoren, eta Erregimen Juridiko, Funtzionamendu eta Eraketa Arautegiaren 123., 127. eta 134. artikulua ikusita, Udaltzako honako hau ERABAKI DU:

Batzorde Informatzaile Iraunkorrak sortzea. Horien izenak, osaera eta erregimen juridikoa honako hauek izango dira:

LEHENENGOA: Udalean ordezkaria duten alderdi politiko edo koalizio guztiak ordezkaturik egongo dira Batzorde Informatzaileetan eta alkateak Batzordearen kide baten gain utziko du Batzordearen burutza.

Batzorde Informatzaileen kide kopurua 5 izango da batzordeburua barne dela.

1.- **HIRIGINTZA ETA INGURUMEN** Batzorde Informatzailea, honako zinegotzi hauek osatuko dutena

**Andoni Etxaniz Osa (EAE)**

Maria Eugenia Arrizabalaga Olaizola (EAJ)

Iñaki Agirrezabalaga Alkorta (EA)

Cristina Forcada Unanue (EB)

Emiliano Cabañas Gonzalez (PSE)

2.- **ZERBITZUEN**, Batzorde Informatzailea, honako zinegotzi hauek osatuko dutena:

**Iñaki Agirrezabalaga Alkorta (EA)**

Manu Zubia Artabe (EAJ)

Andoni Etxaniz Osa (EAE)



Cristina Forcada Unanue (EB-B/A)

Emiliano Gonzalez Cabañas (PSE)

3.- **OGASUNAREN** Batzorde Informatzailea, honako zinegotzi hauek osatuko dutena

**Joseba Josu Azpiazu Azkarraga (EAE)**

Maria Eugenia Arrizabalaga Olaizola (EAJ)

Pilar Etxabe Iriondo(EA)

Xabier Olaizola Antia (EB-B/A)

Emiliano Cabañas Gonzalez (PSE)

4.- **PERTSONALAREN** Batzorde Informatzailea, honako zinegotzi hauek osatuko dutena:

**Andoni Etxaniz Osa (EAE)**

Manu Zubia Artabe (EAJ)

Iñaki Agirrezabalaga Alkorta (EA)

Xabier Olaizola Antia (EB-B/A)

Emiliano Cabañas Gonzalez (PSE)

5.- **EUSKARA-HEZKUNTZAREN** Batzorde Informatzailea, honako zinegotzi hauek osatuko dutena:

**Nerea Epelde Azkue (EAE)**

Maria Eugenia Arrizabalaga Olaizola (EAJ)

Pilar Etxabe Iriondo (EA)

Xabier Olaizola Antia (EB-B/A)

Emiliano Cabañas Gonzalez (PSE)

6.-**KIROLEN** Batzorde Informatzailea, honako zinegotzi hauek osatuko dutena:

**Iñaki Agirrezabalaga Alkorta (EA)**

Unai Manzisidor Andonegi (EAJ)

Joseba Josu Azpiazu Azkarraga (EAE)

Xabier Olaizola Antia ( EB-B/A)  
Emiliano Cabañas Gonzalez (PSE)

7.- **KULTURA, TURISMOA ETA MERKATARITZA** Batzorde Informatzailea, honako zinegotzi hauek osatuko dutena:

**Pilar Etxabe Iriondo (EA)**

Lide Amilibia Bergaretxe (EAJ)  
Andoni Etxaniz Osa (ANV)  
Xabier Olaizola Antia (EB-B/A)  
Emiliano Cabañas Gonzalez (PSE)

8- **GIZARTE ZERBITZUEN** Batzorde Informatzailea, honako zinegotzi hauek osatuko dutena:

**Iñaki Agirrezabalaga Alkorta (EA)**

Lide Amilibia Bergaretxe (EAJ)  
Nerea Epelde Azkue (EAE)  
Cristina Forcada Unanue (EB-B/A)  
Emiliano Cabañas Gonzalez (PSE)

9.- **HERRITARREN PARTAIDETZA, ETORKINAK ETA BERDINTASUNA ETA GAZTERIA** Batzorde Informatzailea, honako zinegotzi hauek osatuko dutena:

**Iñaki Agirrezabalaga Alkorta (EA)**

Unai Manzisidor Andonegi (EAJ)  
Andoni Etxaniz Osa (EAE)  
Pilar Etxabe Iriondo (EA)  
Cristina Forcada Unanue (EB)  
Emiliano Cabañas Gonzalez (PSE)

BIGARRENA: Datozen egunetan, batzordeetara zein ordezkari joango den azaldu ez duten talde politikoeak, beren ordezkariak zein izango diren proposatuko dute.

#### **IV – UDALBATZAKO ORDEZKARIEN IZENDAPENA UDALAK ORDEZKATUA EGON BEHAR DUEN ERA GUZTIETAKO ORGANO KOLEGIATUETARAKO.-**

Alkatearen proposamenarekin bat, talde politikoek iritziak entzun ondoren, Erregimen Juridiko, Funtzionamendu eta Eraketa Arautegiaren 38,e) artikulua ikusita, Udalbatzak honako hau, ERABAKI DU:

**LEHENENGOA:** Udalbatzaren ordezkari izendatzea ondorengo organo kolegiatuetan hemen zerrendatzen diren zinegotziak:

**\*UROLA KOSTA UDAL ELKARTEA:** Bere estatutuen 4. artikuluan eta ondorengoetan ezarritakoaren arabera, Udal Elkarteko organoak dira:

- a) Batzar Nagusia: Udal Elkartea osatzen duten udal guztietako zinegotzi guztiek osatzen dutena.
- b) Presidente eta Presidente ordea: Batzar Nagusiak aukeratu dituenak.
- c) Batzorde Exekutiboa: Presidenteak, hiru presidente ordeak eta 12 batzordekideak osatzen dute. Batzordekideak Udalek izendatzen dituzte era honetara: 1.001 eta 10.000 biztanle artean dituzten Udalek bi batzordekide. Batzordekide horiek hauteskunde koizientearen sistema proportzionalaren arabera izendatuko dira.

EAJko zinegotzi Maria Eugenia Arrizabalaga Olaziola eta ANVko zinegotzi Andoni Etxaniz Osa, izendatu dira Urola Kosta Udal Elkarteko Batzorde Exekutiboko kide.

**\*UREN PARTZUERGOA:** Erakunde honen Estatutuetan xedatutakoari jarraiki (13. artikuluan eta ondorengoei) zuzendaritzako organoak honako hauek dira:

- a) Biltzarra: Partzuergoan partaide den erakunde bakoitzetik ordezkari bat egongo da, udalek izendatzen duten ordezkaria ALKATEA izango da edo berak izendatzen duen ordezkaria. Gainera, alkatearen kargu galtze, gaixaldi edo bestelako kasuetarako ORDEZKO bat izendatu behar da
- b) Batzorde Exekutiboa: Biltzarrak aukeratuko hamabi kideak osatua.
- c) Presidente: Biltzarrak bere kideen artean aukeratua.
- d) Presidente ordea: Biltzarrak bere kideen artean aukeratua.

Iñaki Agirrezabalaga Alkorta **alkatea** izendatzen da Zumaiako Udalaren ordezkari Uren Partzuergoko Biltzarrean, **ordezkoa**, berriz, alkateak izendatzen duen zinegotzia izango da (Andoni Etxaniz Osa ANVko zinegotzia).

**\*GIPIZKOAKO URAK:** Bere Estatutuetan ezarritakoaren arabera (9. artikulua eta ondorengoak) zuzendaritzako organoak honako hauek dira:

- a) Akziodunen Batzar Nagusia.
- b) Administrazio Kontseilua.

c) Administrazio Kontseiluak sortzea erabakitzen dituen organoak.

Akziodunen Batzar Nagusia Gipuzkoako Uren Partzuergoak osatuko du soil-soilik.

Bartzar Nagusiak izendatzen ditu aholkulariak, Uren Partzuergoko Biltzar Nagusiko kideen artetik.

Iñaki Arrizabalaga Alkorta **alkate** jauna izendatu da Zumaiako Udalaren ordezkari **GIPUZKOAKO URAK-AGUAS DE GIPUZKOA S.A** erakundearen ordezkari eta **ordezkoa**, berriz, alkateak, Uren Partzuergoko Biltzarreko kide den aldetik, izendatutako zinegotzia izango da (Andoni Etxaniz Osa, ANV).

**\*SAN JUAN EGOITZA:** San Juan Egoitzako Fundazio Publikoko organoak dira; **ZUZENDARITZA BATZORDEA** eta bere **PRESIDENTEA** (5. Art.). Presidentzia Zumaiako alkatearen edo berak izendatzen duen kide baten esku dago. Zuzendaritza Batzordeko kideetatik bi Udalak izendatuko ditu.

Udaleko **ordezkari** eta Zuzendaritza Batzordeko **Presidente alkatea** izendatzea.

Zuzendaritza Batzordeko kide izendatzea Nerea Epelde Azkue zinegotzia (ANV) eta Pilar Etxabe Iriondo zinegotzia (EA).

**\*URKOME:**Urola Kosta Mendi-nekazaritzako sorrera estatutuetan ezarritakoaren arabera, bazkide bakoitzak ordezkari bat izendatuko du. URKOMEn udal ordezkaria **alkatea** izango da eta bere ordez beste bat izendatu ahal izango du (EB-B/A)

**\*MUSIKA PATRONATUA:** Musika Patronatuaren estatutuetan, 6. artikuluan eta ondorengoetan, ezarritakoaren arabera, gobernu eta administrazio organoak **ZUZENDARITZA BATZORDE** baten esku eta **BATZORDE EXEKUTIBO** baten esku egongo dira.

Zuzendaritza Batzordea honela osatuko da: a) **Presidentea:** Alkatea edo berak izendatzen duen ordezkoa, b)**Kideak:** Alderdi politiko bakoitzeko zinegotzi bat eta bi ordezkari talde ezberdin bakoitzetik.

Batzorde Exekutiboa honela osatuko da: a)**Presidentea** eta Zuzendaritza Batzordeko **presidente** ordea. b)**Kideak:** Batzordeak aukeratutako hiru ordezkari.

**Alkatea** izendatu da Zuzendaritza Batzordearen **Presidente**, eta kideak honako zinegotzi hauek izango dira:

Lide Amilibia Bergaretxe (EAJ)  
Andoni Etxaniz Osa (ANV)  
Pilar Etxabe Iriondo (E.A)  
Xabier Olaizola Antia (EB-B/A)  
Emiliano Cabañas Gonzalez (PSOE)

**\*ESKOLA KONTSEILUAK:** (Institutua eta Herri Eskola)

Eskola Kontseiluetan (Institutua eta Herri Eskola) Udalaren ordezkari Nerea Epelde Azkue (ANV) zinegotzia izendatu da.

**\*EUDEL:** Udalaren ordezkaria alkatea da estatutuen arabera.

**\*ZUMAIA LANTZEN S.A:** Estatutuetan xedatutakoaren arabera, Zumaia Lantzen S.A.ko Gobernu eta Administrazio organoak hauek dira: Batzar Nagusia (Udalbatza osoak osatzen duena) eta Administrazio Kontseilua. Kontseilari karguak bost urteko iraupena izango du. Estatutuetan jasota dago halaber, Kontseilari izateko Udaleko alkate edo zinegotzi izan beharko dela.

Sozietateko eta Kontseiluko presidentea izango da Udaleko ordezkari nagusia, hau da alkatea, IÑAKI AGIRREZABALAGA ALKORTA, jauna 1.977ko otsailaren 21ean jaioa, ezkongabea, ikaslea, eta Zumaian bizi dena ( Arritokieta 24- 1º) NAN zenbakia: 72.454.624 –E, duena.

Ondoren, Udalbatza, Zumaia Lantzen Sozietate Anonimoko **Akziodunen Batzar Nagusi** gisa eratu da, eta bertaratutako kide guztiek aho batez hartu dituzte honako akordioak:

**1.- KARGU-UZTEAK:** Maria Eugenia Arrizabalaga Olaizola andreak presidente kargua utziko du alkate izateari utzi diolako, beti ere, eskainitako zerbitzua eskerturik. Eta Asier Esnal Albizu jaunak Kontseilari kargua utziko du zinegotzi izateari utzi diolako, honi ere eskainitako zerbitzuak eskertzen zaizkiolarik.

**3.- BERRIZ AUKERATZEA.** Maria Eugenia Arrizabalaga Olaizola, 1967ko urtarrilaren 15ean jaioa, zuzenbidean lizentziatua eta Zumaian bizi dena San Telmo kalea 29-5 Eskubian, NAN zenbakia 72.438.327-B duena, lehen ere kontseilari zena, MANUEL ZUBIA ARTABE, 1960ko abuztuaren 4an jaioa, ezkondua, Ekonomian lizentziatua, Zumaian bizi dena ( Basadi 1- 1º C ) NAN zenbakia; 15.935.545 H., ANDONI ETXANIZ OSA jauna 1971ko ekainaren 5ean jaioa, ezkondua, enplegatua eta Zumaian bizi dena ( Jadarre 15.1º ezk) NAN zenbakia; 44.130.193-R duena, EMILIANO CABAÑAS GONZALEZ jauna 1.948ko maiatzaren 13an jaioa, ezkondua, Donostian bizi dena (Busca y Susi 29), NAN zenbakia 12.190.000 duena eta CRISTINA FORCADA UNANUE andrea, 1967ko urtarrilaren 12an jaioa, Zumaian bizi dena (Juan Belmonte 39- 2 D) NAN zenbakia; 72.438.291 KD duena. Eta kontseilari berriak **IZENDATZEA;** Joseba Josu Azpiazu Azkarraga jauna, 1965eko uztailaren 21ean jaioa, Zuamian bizi dena ( Victoriano Arrate 8-1ºC ) NAN zenbakia 15.373.139-P duena. BOST URTERAKO izendatu da

**\*ZUMAIAKO KIROL PORTUA S.A:**

Elkartea honako organo hauek arautzen dute:

a) Batzar Unibertsala: akziodun guztiek osatzen dutena.

b) Administrazio Kontseilua: gutxienez 8 kide eta gehienez 12k osatzen dutena. Batzar Nagusiaren zeregina da kideak aukeratu, izendatu eta kargutik kentzea.

Kontseilariak beren kargua lau urtez beteko dute, eta lau urteok udaleko legegintzaldiarekin bat etorriko dira.

Sozietateko Presidente eta Kontseiluko Presidente alkatea izango da..

Honako hauek kontseilari berri izendatzea proposatzen da, estatutuetan finkaturiko eperako:

**PRESIDENTEA:**

**IÑAKI AGIRREZABALAGA OLAIZOLA.**

**KIDEAK:**

**MARIA EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA EAJ**

**ANDONI ETXANIZ OSA, ANV**

**PALOMA HEREDERO NEGREDO, PSE**

**JON AGUIRREZABALAGA AZANZA, IU**

Alkate jaunari gaitasuna aitortzen zaio akordio hau exekutibo egin dezan.

**BIGARRENA:** Izendapenen berri izendatuei eta dagokion organo kolegiatuei ematea.

## **V- ALKATEAK HARTUTAKO ERABAKIEN BERRI EMATEA, ONDORENGO GAI HAUETAN:**

### **Alkateordeen izendapenak.**

Alkate jaunak uztailaren 14ko 193/07 Erabakiaren berri eman du, bertan ondorengo alkateorde hauek izendatu zituen, ordena honetan:

Lehenengo alkateordea Andoni Etxaniz Osa jauna, ANV talde politikoko zinegotzia, Udal honetan ordezkari duena.

Bigarren alkateordea. Cristina FORCADA UNANUE andra **E.B-B/A**, talde politikoko zinegotzia, Udal honetan ordezkari duena.

### **Tokiko Gobernu Batzordeko kideak.**

EAJk adierazi du Ministroen Kontseilua gobernuan dagoen taldeak osatzen duela, Foru Aldundiko Diputatuen Kontseilua ere gobernuan dauden kideek

osatzen dutela. Tokiko Gobernu Batzordea ere udal gobernuan daudenek osatu behar dute, beraz, organo horretan parte hartzeari uko egiten diote.

PSOEk esan du beraiek ez direla egongo Gobernu Batzordean baina Batzorde Informatzaile Iraunkorretako bakoitzean parte hartuko dutela.

EB-B/Ak esan du Tokiko Gobernu Batzordean parte hartuko dutela.

Alkate jaunak Udaltzari, uztailaren 14ko 192/07 Erabakiaren berri eman dio, bertan Gobernu Batzordeko kide izendatzen ditu ondorengo zinegotzi hauek:

Andoni Etxaniz Osa jauna, ANV talde politikoko zinegotzia, eta Udal honetan ordezkari duena.

Cristina FORCADA UNANUE andrea, E.B-B/A talde politikoko zinegotzia, Udal honetan ordezkari duena

Nerea Epelde Azkue andrea, ANV talde politikoko zinegotzia, Udal honetan ordezkari duena.

Joseba Josu Azpiazu Azkarraga jauna, ANV talde politikoko zinegotzia, Udal honetan ordezkari duena.

#### **Batzorde Informatzaileetako buruak.**

Alkate jaunak, uztailaren 14ko 194/07 Erabakiaren berri eman du, bertan honako Batzorde Informatzaile buruak izendatu ditu:

**LEHENENGOA.-** Ondoren aipatzen diren zinegotzien gain uztea Batzorde Informatzaile hauetako burutza:

**D ANDONI ETXANIZ OSA, EAE-ANV**  
(Hirigintza eta Ingurumena).

**D. JOSEBA JOSU AZPIAZU AZKARRAGA, EAE-ANV**  
(Ogasuna)

**D. ANDONI ETXANIZ OSA, EAE-ANV**  
(Pertsonala)

**D<sup>a</sup>. NEREA EPELDE AZKUE, EAE-ANV**  
(Euskara, Hezkuntza)

**D<sup>a</sup>. PILAR ETXABE IRIONDO, EA**  
(Kultura, Turismoa eta Merkataritza)

**D<sup>a</sup>. CRISTINA FORCADA UNANUE, EB-E/A**  
(Herritarren partaidetza, Etorrinak, Berdintasuna eta Gazteria)

**Alkateak egoki ikusten dituen ordezkariak ematea:**

**ALKATEAK GOBERNU BATZORDEAREN ESKU UZTEN DITUEN ESKUMENAK.**

1.- Sailkatutako Jardueren Irekiera Lizenziak (IGOKA) industriak edo merkataritzako establezimenduak edo beste edozein motatakoak eta Obra Handien Lizenziak, beti ere, Zumaiako Arau Subsidiarioen lizentzien eskaera, izapidetza eta exekuzioaren kontrolari buruzko araudi osagarriak ezartzen duen definizioaren arabera, era bateratuan.

2.- Alkatetza honi pertsonalaren alorrean dagozkion eskuduntzak, era bateratuan.

3.- Udalaren kudeaketa ekonomikoa garatzea, onarturiko aurrekontuaren arabera eta Korporazioari azalpenak ematea ekitaldi ekonomikoan egindako operazioei buruz ( 2.568/86 Errege Dekretuaren 41.18 artikuluari jarriki), era bateratuan.

4.- Zerga bilketa eta Diruzaintza zerbitzuak antolatzea. Beti ere, Udalbatzak zerbitzu hauei buruzko kudeaketa erak onartzearen kalterik gabe. (2.568/86 Errege Dekretuaren 41.19 artikulua)

5.- Udalbatzari berariaz eskuduntzan ematen ez zaizkion planeamendu orokorreko onarpenak, hala nola, hirigintza kudeaketako tresnak eta hirigintza proiektuak, era bateratuan.

**GOBERNU BATZORDEAREN BILERA EGUNAK, ORDUA ETA FUNTZIONAMENDUKO ARAUAK ONARTZEN DITUEN ALKATE DEKRETUAREN BERRI EMATEA.**

**Gobernu Batzordeak, Ohiko bilerak** egingo ditu **hilabete bakoitzeko azkeneko ostegunean 17:30ean**, alkateak berak egoki irizten dionean deitu ditzakeen ez ohiko bileren kalterik gabe.

Beste gairik ezean, bilera amaitutzat jo da, publikoaren txalo artean, gaueko hamaikak eta erdiak direnean, eta nik, idazkariak fede ematen dut.

ZUMAIA, 2007ko uztailak 14.

ALKATEA.-

IDAZKARIA